

# HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

[marina.sagastizabal@ehu.eus](mailto:marina.sagastizabal@ehu.eus)

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila

# EDUKIAK

## 1. GAIA: Soziologiari sarrera


- Soziologiak hezkuntzaren azterketari egindako ekarpenak: teoria sozialaren ikuspegi nagusiak




# 1. GAIA. Soziologiarako sarrera

Soziologiak hezkuntzaren azterketari egindako ekarpenak: Teoria sozialaren ikuspegi nagusiak

# Teoria Soziala: Ikuspegi nagusiak (XIX. Mendea)




Émile Durkheim (1858-1917)



Karl Marx (1818-1883)

## Émile Durkheim



- Durkheimen lana ulertzeko haren **garai historikoa** eta **testuinguru soziala** ulertu behar ditugu
  - Frantziaren eta III. Errepublikaren lehen pausoak.
- Durkheimen lan guztia **Frantzia berreraikitze**ko eta **nazio kohesionatu bat lortzeko helburura** bideratuta dago.
  - Absolutismoa eta tradizionalismoa gaindituta, demokraziak **batasun moral berri bat** bilatu beharra zeukan.
  - **Hezkuntza-sistema** laikoaren instituzio sekularizatuak bete behar zuen **gizarte frantsez berria kohesionatzeko funtzioa**
- **Soziologiak zientzia integratzailea** izan behar du → adostasun sozialak eta ordena sozialak irautea lortzen lagundu behar du
- Iraultza utopia iragankor bat omen da, beraz, **hezkuntzak gizarte-egitura birsortu behar du** (mantendu eta birproduzitu).

## Émile Durkheim



- Hezkuntzaren ikuspegi idealistari kritika egin zion (Rousseau eta Kant), hauen arabera, hezkuntza giza gaitasunak garatzea da, alegia, barruan daramaguna ateratzea. Hezkuntza ideal eta unibertsal bat irudikatu zuten.
- Durkheimek **hiru kritika** egin zizkion ikuspegi honi:
  1. Hezkuntza ez da zerbait “ateratzen” duen prozesu bat, zerbait “sortzen” duen prozesua baizik. Pertsona jendartean eraikitzen da, gizarte-prozesuaren (hezkuntzaren) bidez.
  2. Hezkuntza ez da prozesu “natural” bat, “soziala” baizik: hezkuntzaren helburuak behar sozialen araberakoak dira. Hezkuntza aldatzen da jendartea aldatzen denean, behar sozialak aldatzen direnean.
  3. Hezkuntza-harremanak ez dira “komunikazio-harremanak”, “menderakuntza-harremanak” baizik, harreman asimetrikoan oinarritzen da.

## Émile Durkheim



- Idealistek ez bezala, **izakiaren gaineko ikuspegi ezkorra** zuen:
  - Pertsonaren **lehen izaera biologikoa**: izaki egoista eta asozialak dira, sen naturalak kontrolatuta.
  - Pertsonaren **bigarren izaera ez-biologikoa**: norbanako egoista eta asozialak sozializatu egiten dira, izaera gizatiarra lortzen dute, horrela, **“izaki sozialak”** bilakatzen dira.
  - <https://www.youtube.com/watch?v=YEjGXT831WY>
- Aldaketa sozial handien testuinguruetan **“anomia”** gerta daiteke (araurik ezagatik gizarte-ordena desegitea).
  - Umeak **ideia zaharkituegien** edo **aurreratuegien arabera hezten badira**, ez da **kohesioa** lortuko, heldutasunera heltzean ez dute beren garaikideen artean euren lekua topatuko → anomia.
- **Gizarte modernoan**, erlijioaren nagusitasunaren gainbeheraren ondorioz, **Estatuak esku hartu behar du gizarte zibila kohesionatzen duten ideia eta sentimendu komunen sozializazioa bermatzeko**

## Émile Durkheim



### Horretarako:

- **Diziplina:** Hezkuntzaren helburua ordena sozialari eustea bada, diziplina ezinbesteko tresna da.
  - **Hezkuntza**, soziologikoki aztertuta, **bortxazko ezarpen bat da**: "gizarte bakoitzak, bere garapenaren une jakin batean hartuta, hezkuntza-sistema bat ezartzen du, eta norbanakoei indarrez ezartzen die, eskuarki, horri kontra ez egiteko" (Durkheim, 1975: 47).
- **Irakasleak autoritate morala du:** erritu erlijiosoetan apaizak jainkoaren izenean hitz egiten du; eskolan, irakasleak jendartearen izenean hitz egiten du.



Émile Durkheim




## Hezkuntzaren Funtzio Sozialak:

1. **Belaunaldi gazteak homogeneizatzea** (gizartearen kohesioa lortzeko)
2. **Belaunaldi gazteak dibertsifikatzea** (lanaren banaketa soziala)

Bi funtzio hauek ez dira kontrajarriak: lanaren banaketa norberaren merezimenduetan (logika meritokratikoan) oinarritzen bada.


*“Gizarteak **ezin du iraun** bere partaideen artean **homogenotasun** beharbestekoa eman ezik: hezkuntzak homogenotasun hori **luzatu** eta **indartu** egiten du (...) Baina, bestaldetik, kooperazio guztia **ezinezkoa** izango litzateke halako **desberdintasunik gabe**: hezkuntzak **segurtatzen du** beharrezko **desberdintasun horren iraupena**, bere baitan desberdinduz eta espezializatuz” (6. orr)*

## Karl Marx




- Marx **ekonomiaren** eta **lanaren arlotik** iritsi zen hezkuntzara.
- Kapitalismoa kritikatu eta komunismoa proposatu zuenean, **jendarte bakoitzean hezkuntzak zer zeregin beteko lukeen aipatu** zuen.
- Bere ustez, **burgesa** da gizarte kapitalistetako hezkuntza, bai edukiengatik bai egituragatik.
- **Eskola kapitalisten tresna da**, hortaz, langileen eskola bat asmatu beharra dago.
- Beraz, aldi berean, **hezkuntza aldaketa sozialerako tresna garrantzitsua** izan daiteke

## Karl Marx



- Industrializazioak eta kapitalismoak ekarri duten **gehiegizko espezializazioa** kritikatu zituen. Kapitalismoak **lana eta hezkuntza banatu** ditu eta, lanaren barnean **eskulana eta lan intelektuala**.
  - Lanaren gehiegizko banaketaren ondorioz "**alienazioa**" sortzen da:
    - Pertsonak ez dira euren lanen jabe.
    - Saldu egin behar dute beren produzitzeko ahalmena.
    - Langileei kendu egiten diete lanaren emaitza (soldataren truke) → plusbalioa
- <https://www.youtube.com/watch?v=4N2tnP1sYpY>
- Lanaren banaketarekin amaitzeko **hezkuntza beharrezkoa da**
  - **Pertsona orok eskuekin eta buruarekin lan egiten jakin beharko luke** baita **lana kontrolatu** ere, eta ez alderantziz.
  - Horretarako, **hezkuntzak hiru arlo landu beharko lituzke**: prestakuntza intelektuala, fisikoa eta teknologikoa.

## Karl Marx




Jendartearen egitura **bi osagai** daude:

1. **Azpiegitura**: oinarri ekonomikoa, produkzio indarrak eta produkzio harremanak
2. **Gainegitura**: sistema juridiko-politikoa, ideologia, kultura, hezkuntza-sistema, ..

Azpiegiturak gainegitura **determinatzen** du eta gainegiturak azpiegitura **legitimatzen** du

- **Produkzio bitartekoen jabeek** hezkuntza programak **kontrolatzen** dituzte
- Hortaz, **eskolek burgesiaren posizio dominantea legitimatzen** dute
- Eskola aldatzen bada, baina ez eredu kapitalista, **zapalkuntza birproduzituko** da.

Karl Marx



- Eskolak jendartean bizitzeko **beharrezkoa** den **minimoa** erakutsi beharko luke, eta hortik aurrerakoa eguneroko **harremanetan** ikasi behar lukete **belaunaldi gazteek**.
- Marxismoan, langileentzako eskola gutxi proposatu zuten eta **eskolaz kanpoko hezkuntza gehiago**.
- Eskolak **politeknikoa**, **laikoa** eta **doakoa** izan beharko luke.
- Eskolak **Elizaren** eta **Gobernuaren** kontroletik askatu beharko luke eta **langileen autohezkuntza** eta **ahalduntzea** bilatu.
- Eskolak **beharrezkoa** izan behar du eta **berdina denontzat**.

# Hezkuntzaren Soziologiaren ikuspuntu nagusiak (XX.mendea)

DURKHEIM



FUNTZIONALISMOA

MARX



TEORIA KRITIKOA EDO GATAZKAREN  
IKUSPEGIA


## FUNTZIONALISMOA



Talcott Parsons (1902-1979)

- XX. Mendean ideologia-mailan, diskurtso ofizialak “**modernizazioaren teorian**” oinarritzen ziren, garapen etengabearen ideia:
  - “Gizarte onak dira **hazkunde ekonomiko etengabeak** dutenak”
  - “Zenbat eta **gizarte prestatuagoa**, orduan eta hobe”
  - “Gero eta hobeto bizitzeko, beharrezkoa da **garapen teknologikoa** eta garapen teknologiko horrek beharrezkoak ditu biak: **lanaren espezializazioa** eta **langileen prestakuntza**”
- II Mundu Gerraren ostean **funtzionalismoa** nagusitu zen soziologiaren korronteen artean, batez ere, Estatu Batuetan

## FUNTZIONALISMOA



- Korrante honen arabera, **gizartea instituzio edo sistema multzoa da**, eta sistema horietako **bakoitzak funtzio sozial bat betetzen du**.
- Funtzionalisten eginkizuna gizartea osatzen duten **elementu edo egiturak identifikatzea da**, baita **elementu horiek zein funtzio betetzen dituzten aztertzea ere**.
- **Hezkuntzaren funtzio nagusia** belaunaldi gazteak **gizarteratzea eta lan-merkaturako prestatzea** → hezkuntza planifikazioa **ekonomiaren beharretara egokitu behar da**
- **Giza kapitalaren teoria**: sistema ekonomiko batek egin dezakeen inbertsio errentagarriena da beraren "giza kapitala prestatzen" egiten duena
- Zenbat eta **hezkuntza gehiago**, orduan eta **produktibitate eta errenta handiagoak** lortuko dira



## FUNTZIONALISMOA



- Sistemaren oreka mantentzeko lan banaketa ezinbestekoa da:
  - Lanaren zatiketa eta posizioen hierarkizazioa beharrezkoak dira
  - Bakoitzak bere funtzioa dauka eta posizio/funtzio guztiak beharrezkoak dira
  - Hierarkian dagoen kokapen bakoitzak sari bat jasoko du, meritu indibidualen arabera
  - Sarien ezberdintasuna beharrezkoa da
- “Denontzako hezkuntza” ziurtatuz gero, denok egongo ginateke aukera berdintasunaren lasterketaren hasieran, eta norberaren merituen eta lanaren arabera izango litzateke helmugako emaitza
- Balioetan, arauetan kontsentsua (legitimazioa) dagoen heinean, estratifikazio-sistemak gizartearen integrazioa indartuko du
- Gatazka arazoa da (anomia, funtzionalitate eza sortu dezake).

## TEORIA KRITIKOA



Ralf Dahrendorf (1920-2009)


- **Funtzionalismoari kritika:** korrante kontserbadorea da, gizarte-oreka eta –egonkortasuna ziurtatzen dituzten funtzioak bakarrik aztertzen ditu.
- Estratifikazioa eta ezberdintasun sozialak **justifikatzen ditu**.
- **Hezkuntzari dagokionez**, “logika meritokratiko” faltsu bat saltzen du (bakoitzari bere dohain, esfortzu eta merezimenduen arabera), errealitatean betetzen ez dena, bakoitzak egiten duenaz gain, **bestelako faktore eta eragin sozialak** baitaude.
- **Gatazka funtsezkoa da:** jendarte gatazkaz josia dagoen sistema da, interes ezberdinak baitaude (ekonomikoak, kulturalak, etnikoak,..)
  - “Gatazka historiaren motorea da” (Marx)

## TEORIA KRITIKOA



- 1966: **Coleman Txostena** " *Equality of Educational Opportunity*". AEBko milioi bat ikasleren gaitasunak aztertu zituzten, **ezberdintasun ekonomiko eta etnikoek hezkuntzan nolako eragina zuten** aztertu nahian
  - **Emaitza:** ikasleen eskola-errendimenduan jatorri sozialak eragin funtsezkoa du, eskolako baliabideek ez dute ia aldaketarik sortzen errendimendu hortan.  
<https://www.youtube.com/watch?v=-HJrtVbsKOE>
- **Hezkuntzak berak bakarrik ez du berdintasun sozial handiagoa lortuko.** Beharrezkoa da errenta hobeto banatzea, lana, jabegoa eta etxebizitza hobeto antolatzea, eta abar.

## TEORIA KRITIKOA



### ○ Korrespondentzia eta berpiztearen teoriak:

- **Korrespondentzia** zuzena dago hezkuntzaren eta gizarte kapitalistaren beharren artean → hezkuntzak lanaren banaketarako edo espezializazioarako prestatzen ditu **gizakiak, esplotazio- eta menderakuntza-harremanak onartzeko** (*Louis Althusser, Christian Baudelot*).
- **Berpiztearen teoriak** dio gizarte kapitalistan, eskolaren funtzioa ezberdintasun sozialak berpiztea edo berregitea dela → eskolak indarkeria sinbolikoa erabiltzen du klase menderatuen aurka, "**kultura legitimo**" gisa inposatzen baitu berez klase sozial baten kultura baino ez dena. Ondorioz, **ikasleek beren jatorrizko kultura aldatzen dute edo hezkuntza-sistematik kanpora geratzen dira** (*Pierre Bourdieu, Jean-Claude Passeron*).

# Bi ikuspuntuak parez pare




## FUNTZIONALISMOA

- Jendarte jakin baten balioak transmititzen dira
- Desberdintasunak halabeharrezkoak dira
- Kohesioa lortzen laguntzen du
- Meritokrazian oinarritu

## TEORIA KRITIKOA EDO GATAZKAREN TEORIA

- Talde nagusien kultura transmititzen da
- Hezkuntzak ezberdintasunak legitimatzen ditu
- Jatorri sozialak eragin handia du eskolan

Funtzionalistak



Kritikoak

Talde nagusien kultura transmititzen ote?

Zeintzuk dira Hezkuntzaren Soziologiaren teorikoen ezaugarriak?